

TAGUŞ


ZALDI-GIZONA



PIZTIEN ERRONKA 4

ADAM BLADE

Miren Ibarluzearen itzulpena



LAUTADA

IPARRALDEKO
MENDIAK

MENDEBALDEKO OZEANO

BELDURRAREN
BASOA

HAIZEAREN

IZOZTUAK



Abantia

LAUTADA
NAGUSIAK

LANDAK

HUGO
ERREGAREN
JAUREGIA

HIRIA



ERRINEL

ERREKA





*O*ngi etorri *Abantia* erresumara! *Aduro* nauzu,
Aduro Azti ona; *Hugo Erregearen* jauregian bizi naiz.
Ez zara sasoirik onenean iritsi, alajaina...

Antzinako idazkietan jasota dagoenez, halakoren batean
arriskuan murgilduko omen da gure erresuma baketsua.

Bada, une hori iritsi da.

Malbel Azti ilunaren sorginkeria zitalen mendean,
sei *Piztia* ~*Suzko herensugea*, *Itsas sierpea*, *Erraldoi*
basatia, *Zaldi-gizona*, *Elurretako munstroa* eta *Sugar-*
-hegaztia~ amorratuko omen dira, eta piztiek suntsitu
egingo omen dute lehenago babesten zuten lurraldea.

Abantia arrisku bizian dago.

Baina, antzinako idazkietan heroi baten berri ere ematen
da. *Bertan* idatzitakoaren arabera, mutiko batek *Piztiak*
madarikaziotik libratzeko erronkari ekingo dio, gure
erresuma gaitzetik atera dadin.

Ez dakigu mutiko hori nor den; baina, heldu da haren unea...

Gure eroi gazteak izango al du erronkari aurre egiteko
beste adore eta bihotz! Gurekin bat egin eta zer gertatuko
den jakin nahi duzu?

Abantiak agur egiten dizu,

Aduro

SARRERA



Victor bat-batean iratzarri zen. Ezpatari heldu zion, eta ingurura begiratu zuen, adi. Egunsentirako gutxi falta zen, eta zerua argitzen ari zen sortaldean. Aurreko gauean piztutako suak utzitako txingarrak gorri zeuden oraindik. Victorrek landa itzaltsuetara begiratu zuen: han ziren abelburuak. Dena zegoen ohi legez.

—Amesgaiztoren bat izango zen—pentsatu zuen, eta berriz etzan zen lo-zakuan.

Baina, ezin zuen begirik bildu. Azken astean hiru eraso izan zituzten abeltegian gauetz. Azken erasoan lau abelburu galdu ziren. Inork ere ez zekien nor edo zer zen erasogilea. Victorrek ez zekien zer pentsatu; dena den, pozten zen gaua ia joana zelako. Abelburuak goizera arte baino ez zituen jagon behar. Gizon guztiak lo zeuden euren kanpalekuetan, abelburuetatik urrun samar.

Landetatik zetozen soinuei erreparatu zien: haize leuna zebilen belar garaiak lantzantzen, eta kilkerrak txirri-txirri zebiltzan azken kantuak egiten; txori baten txilioa entzun zen abereen marruen gaineratik.

Egon... Hura ez zen zuzena. Abereek lo behar zuten, eta ez marruka.

Brastakoan eserita, aziendari begiratu zion: abereak bat eginda zeuden, ohi baino hurbilago, elkarri lotuta, txahalak erdian bilduta; zerbaiten beldur ziren seinale zen hura. Baina, zeren beldur ziren?

Orduan, Victorrek apatx-hotsen errepika entzun zuen urrunean. Irudipena ote zen?

Abereak etengabe hasi ziren ostikoka lurra zanpatzen. Victor zutitu egin zen.

Apatx-hotsak gero eta hurbilago entzuten ziren.

Bazen han zerbait.

Itzal bat agertu zitzaion iluntasunetik, aurrez aurre. Bat-batean, Piztia izugarri bat ikusi zuen hantxe, kanpalekuko su-txingarren ondoan.

Hasperen egin zuen Victorrek. Piztiak gizon-soin erraldoia zuen, baina zaldi sendo baten gorputzera loturik zegoen.

Erabat izaturik, Victorrek zur eta lur begiratu zion Piztiari. Bizar-ile beltz luzeak zituen. Su-txingarrak Piztiaren begi beltzetan islatzen ziren, begi gorri amorratuak ziruditen.

Piztia atzeko hanken gainean jarri zen, indarrez gurruka, apatxak airea joka.

Ikaraturik, Piztia erasora zihoala ohartu zen Victor.

Piztiaren bidetik ihes egiten saiatu zen, baina ez zen behar bezain azkarra izan. Piztiaren apatxetako batek jo zion buruan, eta ziplo erori zen lurrera. Orduan, Piztia su-txingarretara abiatu zen, eta zabaldu egin zituen errautsak eta egur-ikatzak, su-txinpartak sortaraziz. Burua atzera bota eta orro egin zuen, landetako belar lehorrak su hartzen zuen artean.

